

Jardunaldi Teknologikoa "Social Business: negozio eraginkorrak pertsonen artean" gaiari buruz

- *Social Business hitzak, enpresak gizartekoiagoak izateko egin behar duten bilakaera adierazten du.*
- *Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamahirugarren edizioan barneratzen da eta **bihar, osteguna 8**, burutuko da.*
- *Hitzaldiak Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan egingo dira eta 200 pertsona baino gehiago espero dira bertan.*

Donostia - 2015ko Urriaren 7a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute "**Social Business: negozio eraginkorrak pertsonen artean**" izenburupean. Jardunaldia **bihar, osteguna**, burutuko da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamahirugarren edizioan barneratzen da eta gaur egun Social Business-ak enpresan zer adierazten duen jakin nahi duten profesionaleri eta enpresariei zuzendua dago.

Social Business hitzak, enpresak "gizartekoiagoak" izateko egin behar duten bilakaera adierazten du. Negozio edoeta funtzional alor ezberdinetan sortzen diren trabak haustean datza, prozuak eta barruko eta kanpoko komunikazioak irekigoak, partehartzailegoak eta kolaboratzailegoak izan daitezten.

Giza teknologien aplikazioak lankidetzazabalago bat sortzea erraztu dezake, eta baita komunitate eta partaide izatearen sentimendua zabaldu ere, honek pertsonen arteko lankidetzaz sortzen duen duelarik: langileak, bezeroak, hornitzaileak, negozioen bazkideak etab. Era berean, errekurtsoak, gaitasunak eta ezagutzak partekatzen dira enpresa-emaitza hobekien lortu ahal izateko. Bilakaera honek suposatuko du "enpresak enpresak izateari utziko diotela" eta pertsonak bailiran bezala jokatu dutela, helburu konkretu bat duten pertsonak bezala elkar eragina izanez.

Modu eraginkorrean kudeatutako Social Business tresnak, produktiboagoak izaten laguntzen dute, ideia hobekien izateko zentratzen laguntzen dute eta kolaborazio eta partehartze hobeko bat izaten laguntzen dute, eta horrez guztiaz gain enpresaren emaitzak hobetu dezakete.

Laburbilduz, Social Business-a bere emaitzak, prozesuak, negozio modeluak... hobetzeko giza teknologia aplikatzen duen enpresa bat da. Kanpoko de barruko pertsonekin lankidetzaz eta komunitatearen espiritu bat sortuz eta zabalduz, balioa sortzeko helburuarekin.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak , 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga, Gauzen Interneta, Big Data...

Hizlari aipagarriak

Hitzaldiak Miramongo Parke Teknologikoan egingo dira eta 200 pertsona baino gehiago bilduko direla espero da. Hitzaldiak *Social Business* gaiaren inguruan adituak diren pertsonak egingo dituzte, horien artean **Mireia Ranera** Incipy Human Capitaleko Zuzendari Nagusia. GGBBen eta Prestakuntza proiektuen Negozioen Garapenean aholkulari moduan lan egin du hainbat komunitate birtualentzat. **Pedro González**, bestalde, Paid Media alorreko Proiektu Arduraduna da, bezero garrantzitsuentzat estrategia digitalak lantzen aritzen da eta eskola eta unibertsitate ezberdinetako prestatzailea da ere. Aholkularitza digitalean, online marketinean eta publizitatean eta online komunikabideen plangintzan aditua da. **Stephan Fuetterer** berriz, 1998an sortu zen Best Relations aholkularitzako Zuzendari Nagusia eta bazkide sortzailea da. 1996tik komunikazio programak egiten ditu interneten bitartez. **Juan Liedo** azkenik, Ibermaticako Social Business alorreko Kudeatzailea da. "Comisión Social Business de la Asociación Española de Usuarios de Telecomunicaciones y Sociedad de la Información" erakundeko aholkularia da. EHuko eta Bilboko Merkataritza Ganberako Marketin eta Enpresa Kudeaketa mailako ESIC Marketing & Business School-eko irakaslea da.

Egitaraua

9:00 – 9:15	Hasiera
9:15 – 10:00	Sarrera Stephan Fuetterer , Zuzendari Nagusia (Best Relations)
10:00 – 10:45	Employer Branding inguru digitalean: formula berriak konprometitzea eta talentuak erakartzea Mireia Ranera , Bazkide eta Zuzendaria HR 2.0 (Incipy, Transformación Digital)
10:45 – 11:30	Social Business: hartzearen estrategia behar duzu Juan Liedo , Social Business Unitateko Kudeatzailea (Ibermática)

KAFERAKO ATSEDENA

12:00 – 12:45	Social Paid Media, mugikorra eta RTB. Publizitate digitalaren (eta guztiaren)
----------------------	--

	ebaluaketa Pedro González , Paid media arloko zuzendaria (Territorio Creativo)
12:45 – 13:30	Entreprise social: Benetako kasuak eta berrikuntza arloan Diego Gómez , Product Marketing Manager (Microsoft)

Laguntzaileak

Antolatzaileak



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347